



**MONTES  
SOLIDARIOS**



## **GORBELA 2021 PRENTSA-OHARRA**

2021eko irailaren 19an, igandean, "GorbELA 2021" izeneko ekitaldia egin zen, Gorbeia gailurrera igoera solidarioa.

**TRAS LA ELA EN VELA** proiektuaren hirugarren erronka da. Proiektuaren helburua alboko esklerosi amiotrofikoa (ELA) ikusaraztea eta gizarteratzea da, bai eta gaixoei arreta emateko dirua biltzea ere.

Proiektua **2018an** sortu zen, "**Fisterra desafioa**" izeneko proba burutu zelarik. Bilbotik, Unai Basurkoko gidaturiko Pottoka belaontzian, eskalarik gabe. Tripulazio gisa, Kepa Junkera (interpretea eta konpositorea), Josu Martinez (errealizadorea), Juan Carlos Aurteneche eta proiektuaren sortzailea, ELA gaitza duen Iñaki Elorriaga, Getxotarra.

**2019an**, proiektuarekin jarraiturik, "**Abrako Triatloi Solidarioa**" egin zen Getxon, kirolari sutsuen parte-hartzearekin.

**2020** urtean mendira jo genuen "**GorbELA**" ekimenean: gure Gorbeia mitikora igotzea erabaki zen. Pandemiaren bilakaerak, abentura hau atzeratzera behartu gintuen, eta ilusio handiagoz ekin ahal izan genion 2021eko irailaren 19an.

Aurten, Muruatik (Araba) abiatu zen gure taldea, goizeko lehen orduan. ELA gaitza duten lau pertsonak, **Iñaki Elorriaga eta Iñaki Nieves, bizkaitarrak, Ana Mosquera, Gipuzkoarra eta Rodrigo García, arabarra**, "Joëlette" aulki berezi banatan, Montes Solidarios elkarteko kideek bultzatuta, gailurra egin zuten 12:30tan. **Jaime Lafita, bazkide bizkaitarra**, oinez igo zen, bere semeek lagunduta.

Deialdiaren arrakasta handia izan zen, eta COVID protokoloak ezarritako segurtasun-neurriak uneoro errespetaturik, ELA gaitzaren munduko 300 pertsona bildu ginen. Gaixoak, haien senitartekoak eta lagunak, boluntarioak... gure lagunak aulkiekin batera igo ziren.

Une oro, Arabako Gurutze Gorriko mendiko talde espezializatuaren laguntza izan genuen, ekitaldia ahalik eta hobekien egingo zela bermatzeko.

Gasteizko "Centro Asturiano Covadonga" eta "Rte. Asturiano el Trasgu Fartón" emandako hornidura goxoa ere gozatu genuen.

Tontorrean, adar-hotsak eta txalo artean, espedizioan parte hartu zuten pertsonen korridore bat egin zuten benetako protagonistei harrera egiteko, ohorezko aureskua dantzatu zen eta, azkenik, ekitaldi hunkigarri bat egin zen. Ekitaldi horretan, Iñaki Elorriagak gaixoei elkartasunerako deia egin zuen, eta benetako garrantzia eman zien gaixoei zainketa aringarri eta familiei dakartzkien zamari.

Igoeran gaixoei erakutsi zuten kemena nabarmendu nahi dugu. Kemen honek, Montes Solidarios elkarteko boluntarioen maisutasunak, senitarteko eta lagunak indarrak... gure

Con la colaboración de:



Centro Asturiano Covadonga  
Vitoria-Gasteiz





**MONTES  
SOLIDARIOS**



espedizioa gailurrera eraman zuten eta elkartasuna eta alboko esklerosi amiotrofikoa (ELA), oro har, eta zainketa aringarriak, bereziki, bistartzeko helburuak betez.

Indarrak berreskuratu ondoren, arratsaldeko bostak aldera iritsi zen abiapuntura gure taldea eta amaitutzat eman zen ekitaldia.

Oharra: "Fisterra desafioak" eta "Abrako triatloi solidarioak" beren dokumentalak dituzte. Estekak:

2018, ELAren ondoren, "Desafío Fisterra": ([https://www.youtube.com/watch? V = Z5uSSst0zzk](https://www.youtube.com/watch?v=Z5uSSst0zzk)),  
2019, "Triatlón del Abra 2019": (<https://adelaEuskalherria.com/2020/03/23/amar-la-vida/>)

"GorbELA" ren dokumentala laster egongo da prest.



Gorbeia mendiaren gailurra GorbELA 2021 ekitaldian

- Montes Solidarios de Araba: aniztasun funtzionala duten pertsoneri zuzendutako mendiko jarduerak sustatu eta antolatzen dituen irabazi asmorik gabeko elkarte.

Con la colaboración de:



Centro Asturiano Covadonga  
Vitoria-Gasteiz





Ezkerretik eskuinera: Iñaki Nieves, Rodrigo García, Jaime Lafita, Iñaki Elorriaga eta Ana Mosquera, Montes Solidarios elkarteko Boluntarioak, senideak eta lagunak.



Iñaki Elorriagak ELA gaitza duten pertsonetako elkartasunaren aldeko deia egin du eta zainketa aringarrien beharra, zentzurik zabalenean, azpimarratu du.

Con la colaboración de:



Centro Asturiano Covadonga  
Vitoria-Gasteiz

